


## **Alberto Iñurategik hasiko du 2018ko txotx bolada urtarrilaren 15ean, Gurutzeta sagardotegian**

EUROPA PRESS - 2018(e)ko urtarrilaren 8a, astelehena - 13:00etan eguneratua



Sagardoaren Lurraldean elkarteak urtarrilaren 15ean antolatuko du XXV. Sagardo Berriaren Eguna, 2018ko txotx boladari hasiera emateko, eta aurtengo gonbidatua Alberto Iñurategi eskalatzaila eta mendizalea izango da. Astigarragako Gurutzeta sagardotegian "Gure Sagardo Berria" oihu eginda lehen kupela irekiko du Iñurategik, 13:45ean, eta horrela hasiko da aurtengo txotx denboraldia.

DONOSTIA. Aurretik, 12:00etan, Zorione Etxezarraga Astigarragako alkate eta Sagardun Partzuergoko lehendakaria Sagardoetxean ospatuko den aurkezpen ekitaldiko buru izango da, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Aldundiko ordezkariekin batera, eta uzta berria aurkeztu eta sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarrien berri emango du, besteak beste.

Sagardoaren Lurraldean elkarteak arduradunek jakinarazi dutenez, urtero bezala, 25. aldi honetan ere, ekitaldiko unerik garrantzitsuena txotx irekiera izango da. Horrela, Astigarragako Gurutzeta sagardotegian "Gure Sagardo Berria" oihu egingo du Alberto Iñurategik lehen kupela irekitzean, eta horrela, 2018ko sagardo denboraldi berria hasiko da.

Aldez aurretik, Sagardoetxeko sagastian sagarrondo berri bat landatuko du Iñurategik. "Ekitaldi sinboliko horrekin, naturaren dinamikotasuna eta berritzeko ahalmena azaldu nahi dira, urtetik urtera mahai batean sagardoaren bueltan esertzeko aukera eskaintzen baitigu", adierazi dute.



### **¿Cómo pagar 63% menos en el seguro del coche?**

Hace 4 meses decidimos cambiar la compañía con la que tenemos asegurado nuestro coche porque estábamos cansados de pagar 480 € al año con Mapfre. Cada vez que veíamos en el buzón la carta de Mapfre nos poníamos de mal humor, pero esto dejó de ser un problema cuando descubrimos la nueva compañía a través de la cual hemos asegurado nuestro coche. Os contamos cómo hemos conseguido pagar un 63% menos

**Haz click para leer este contenido**

Aurten, gainera, Sagardo Berriaren Egunaren 25. edizioa izanik, aurreko urteetako gonbidatuetako batzuk 2018ko txotx irekieran izango dira. Aurreko urteetako gonbidatuen artean daude Andoni Egaña bertsolaria, Julian Retegi pilotaria, Juan Mari Arzak sukaldaria, Joane Somarriba txirrindularia, Ainhoa Arteta sopranoa, Juan Martínez de Irujo pilotaria, Real futbol taldea, Karlos Argiñano sukaldaria, La Oreja de Van Gogh taldea, Kalakan taldea, "Loreak" filmeko protagonistak, Aritz Aranburu surflaria edota Eneko Atxa sukaldaria.